

Inma Errea

ITZULTZAILEA ♦



DANI BLANCO

Bisitari etxean, herritar kanpoan

BARTZELONA, LARUNBAT ARRATSEAN. Hiria bisitariz lepo, ekainaren azken asteburuan. Espainiako plazaren eta Paraleloaren arteko gunean, Prideparadea. La Ramblan, ohiko turista eta bisitariak pasean, festarako jantzirik, dotore. El Liceu-ren ate nagusian, ehunka lagun antzokira sartzeko zain. La Ramblan gora eta behera ari diren gehienak ez bezala, bartzelonarrak, katalanez mintzo, eta tarteka-marteka gaztelaniaz. Massana eskolaren 85. urteurrena ospatzeko saiora joanak, 15 bat euroren truke Maria del Mar Bonet eta Pau Riba kantariak eta zenbait poeta katalan handiren hitzak entzutera. Jantzkeran ere Rambletan dabilzanekin zerikusi gutxi duen jendea.

Irakasle baten aholkuari heldu, eta ene hiriko eraikinei bisitari baten begiekin egiten diet so batzuetan, lehen aldiz ikusiko banitu bezala. Eraikinei, kaleei eta jendeari. Huts egindako saioak dira ia beti: zaila da nork bere burua beste-enganatzea.

Iruñean turista andanekin topo egitean ere, haietako bat banintz bezala irudikatzen dut nire burua, etxekoek beharrezko ez duten eta kanpoei behar dutena adierazten ez dieten kartelak deszifratzen, adibidez. Saiatzen naiz ulertzen zergatik jotzen duten hain erakargarri Entzierroaren monumentua:

Bartzelonako asteburuan, bertako bilakatu ginen ordu pare batez, etxeko, Massanaren urteurren-emanaldian (...). Ilusio hutsa: behin kalera irtenda, bisitari ginen berriro, arrotz

argazkietarako korrikalari ausartaren plantak egitea guretzat Eiffel dorrea edo Pisakoa hatz puntarekin ukitzen ari garen itxurak egitea bezala da.

Bartzelonako asteburuan, bertako bilakatu ginen ordu pare batez, etxeko, Massanaren urteurren-emanaldian. Jende gutxi ohartuko zen turista ginela, katalanek eta euskaldunok partekatzen dugun diskrezioa lagun. Ilusio hutsa: behin kalera irtenda, bisitari ginen berriro, arrotz.

Senide eta lagunei kontatze aldera kultura arrotzetan blaitu bai baina beraien hiriko museoak bisitatzen ez dituztenak. Hori dira –gara– turistak, Adriana Aguirrek Bartzelonako turismo-gehiagikeriez ari den Pros “tourist”ución artikuluan (www.arquitectura-politica.org) emandako definizioan. “Turista batek galde-tzen badio bartzelonar bati zer bisitatu behar duen eta zer ez, bartzelonarrak esango dio La Mina auzora ez joateko, eta La Ramblara hurbiltzeko, baina, egiatan, bartzelonar turismofobikoa beti saiatuko da giza estatuen, arrosen

eta oroigarrien oihanean ez sartzen”.

Turismoko irabazien parte bat tokiko balioak defendatzera bideratzea proposatzen du Aguirrek. Etxean bisitari bagina, eta kanpoan herritar... ■



DANI BLANCO



**Amets
Arzallus**



BERTSOLARIA

Uztaritze

UZTARITZEKO Herriko Etxeak bere eremuan euskara hizkuntza ofizial izendatzeko deliberoa hartu du. Biba zuek! Nazioarteko legedian atzeman du horretarako oinarri juridikoa, edo etikoa, edo bietarik nahasian. Frantzian frantsesarenak baitira hizkuntza eskubide guziak, euskaldunak, bretoiak, korsikarrak, okzitaniarrak, kanakiak... ez du hizkuntza eskubide aitorturik, ez bada frantsesez mintzo delarik. Eta hizkuntza baztertuen aldeko borroka juridikoa lege zirrikituak bilatzera kondenatua da engoitik, lege frantsesen zirrikitutxoak, edo lege bide nazioartekoak.

Ez dakit suprefetak markatutako labirinto juridikoetatik Laborantza Ganbara atera zen bezain bizirik edo Seaska Ikastola atera zen bezain zauriturik aterako ote den Uztaritzeko Herriko Etxea. Agian, ofizialtasun hori baliorik gabe utziko du epaile elebakar batek. Ez nau ni horrek gehiegi kezkatzen. Benetan eta gehien axola zaidana Herriko Etxeak berak izendapen hori eguneroko praktika errealera eramateko pentsatua dukeen bidea da

Uste dut horretan dela auzia. ■

